

## FITXA TEKNIKOA

**Estreinaldia:** Abenduaren 4an, Victoria Eugenian, 19:30ean. Sarrerak, 10 euroan salgai daude.
**Egilea:** Bernardo Atxaga.
**Zuzendaria:** Garbi Losada.
**Musika:** Juan Carlos Pérez.
**Aktoreak:** Ramon Agirre, Joseba Apaolaza.
**Kantaria:** Klara Mendizabal.
**Perkusionista:** Jabi Alonso.
**Hizkuntza:** Euskara (gaztelaniazko azpitituluekin).

osaturiko eszena eta eszena zatirekin osaturiko kaleidoskopioa da, Juan Carlos Pérez-ek sorturiko jatorriko partiturarekin osatua.

Emaitza era honetara deskribatu zuen Atxagak: «Zaila egin zait idatzi dudan hori definitzea. Obra dramatiko bat ote? Umorezkoa, umore ilun batez jositakoa? Ilunabarraren une jakin batean ez omen dira hari txuria eta hari beltza bereizten. Litekeena 'Lu eta Le'-ren argiak ere bereizketa garbirik ez bideratzea, edo bideratzea Ados Teatrokoek gogo dutena».

### Melodia ezagunik ez

Eta musika, berriz, honela planteatu zuen idazleak: «Juan Carlos Pérezekin hitz egin eta obrarako musika eskatu nionean, bat etorri ginen segituan: ez zen melodia ezagunik izango, ez genuen publikoa ahopeka kantatzen jarriko. Ondo zeuden kontzertuak, nola ez; ondo zeuden gorazarreak, nik neuk azken agur gisa eskaini niona bezalakoak; baina antzokiek esperientzia desberdin baten euskarri izan behar zuten. Testua ez da ohikoa, eta musika ere ez. Juan Carlosek eta biok askotan egin dugu lan, Itoizen garaietatik gara lankide, eta gero ere, adibidez paradisuari buruzko doinu batzuk egin zizkidan».

Eta nolatan aukeratu zuen Atxagak Ados Teatroa? «Ikusi nuenean hauen lan bat estetika japoniarra zeukana, pentsatu nuen: hauekin egin behar dut ba!». Garbi Losada zuzendariak ezin zuela agertu eta, Ados antzerki-konpainiaren izenean, José Antonio Vitoriak hau esan zuen atzo: «Gu ailegatu ginenerako prest zegoen lehergailua. Testu hau ez da jendeak espero duena Lete eta Iriondori buruz. Kaleidoskopio tankerakoa da, ez dauka egitura tradizionalik eta ez da hildako lagunaren inguruko sentimentalismo errazean erortzen».

Juan Carlos Pérezek, berriz, honela mintzatu zen atzoko agerraldian: «Atxaga eta biok badaukagu halako kimika bat. Berak argi zeukan musika bere buruan, eta nire lana izan da musika hori idaztea». Ez nituen ezagutu Lete eta Iriondo, beste belaunaldi batekoak ziren. Garbi zegoen beren musika ipintzea nabarmenegi gelditituko zela, eta beren munduaren atzeko aldea, oihartzun bat, ekarri dut. Perkusio-set bat egongo da agertokian, hori besterik ez. Lagun bat bakarra, eta horrela hitza izango da nagusi. Doinu hauek idaztea asko kostatu zait».

Eta zer ikusiko da agertokian? Bi aktore –Ramon Agirre eta Joseba Apaolaza– eta aktore-lana ere egingo duen Klara Mendizabal sopranoa. Batzuetan hizketa egingo dute, beste batzuetan hitzak itxuragabetuta gelditituko dira, beste zenbaitetan keinuek hartuko dute hitzen tokia. Laburbilduta, errealismotik oso urruti dabil antzezlan hau.

«Arreta handia ipiniko da espresio eta keinuen zehaztasunean, hala nola, testuaren erritmo eta intonazio ez naturalistan. Helburua izango da hitzen musikaltasunarekin, errepikapenekin, erritmo aldaketekin, zuzeneko musika eta abeslariaren arteko interakzioarekin komunikazio egoera zabalago bat sortzea», adierazi dute Donostia 2016koek.



Mario Domínguez, director del Docomomo Ibérico 2016. :: MIC

# «Donostia tiene la suerte de ser casi de la arquitectura

El noveno congreso ibérico sobre patrimonio arquitectónico se celebra desde mañana en el Centro Carlos Santamaría

:: IMANOL TROYANO

**SAN SEBASTIÁN.** El Centro Carlos Santamaría acoge a partir de mañana y hasta el viernes el IX Congreso de Documentación y Conservación del Movimiento Moderno Ibérico (Docomomo). Este evento reunirá a alrededor de cincuenta expertos internacionales de la arquitectura para versar en torno al 'Patrimonio cultural y Sociedad'. Un concepto muy amplio, pero como apunta Mario Domínguez, director de Docomomo 2016, «no se ha puesto un nombre más explícito para un acercamiento más libre si cabe. Lo que nos interesa es sacar la arquitectura de la mirada del especialista y encontrar cuál es la ligazón entre los miembros de la sociedad, los agentes sociales y el patrimonio cultural de movimiento moderno». Este movimiento agrupa los edificios construidos en-

El patronato Docomomo
puesto por colegios y escu
arquitectos de toda España
tugal, viene realizando des
veinte años este congreso.
mo tuvo lugar en 2013 en
y su delegación en Gipuzko
tiempo realizando la labor
tificación de los edificios
ajusten a las características
vimiento moderno. La sem
sada colocaron una placa e
nocimiento al edificio de lo
beros de la calle Easo.

La convención se divide
jornadas y cada una cuenta
temática diferente. Mañan
arranque, se hablará de ge
economía del patrimonio c
es decir, descifrar cuál es e
de la legislación y los instı
tos financieros y sociales
ción a la custodia, distrib
venta de esos edificios patr
les.

### Implicación ciudadana

El segundo día se pondrá e
tión la implicación ciudad
ciudadano tiene que ser m
ciente de que parte de sus i